OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEA

# OEEberri

2013-05-22 22. alea

## Iruñean

Erizaintza Eskolan egindako 23. Osasun Biltzarrak zapore ona utzi digu berriz ere. Familia-giroan egoteaz gain, hitzaldi, ahozko aurkezpen eta tailerren maila apartekoa izan da.

Sarrera ekitaldia

Euskararen osasunari buruzko hitzaldia

Lehenengo mahai-ingurua

Zenbait partaide

## Ekainaren 20ra arte luzatu da Saio Klinikoen Lehiaketa lanak aurkezteko epea

BagaBigaBlog-ek lehiaketa hau antolatu du, saio kliniko onenak saritzeko, Azkue Fundazioaren eta OEEren babespean.

Lau Sari daude guztira: Medikuntza, Erizaintza, Fisioterapia eta Osasunaren beste alorretakoak (Farmazia, Psikologia, Podologia, Odontologia eta abar).

Informazio gehiago:

http://bagabigablog.blogspot.com.es/

*Irudia: farmaziagabilondo.com*

## OEEren 2014ko Biltzarra Donostian izango da eta Osasun Hezkuntza jorratuko da

Dagoeneko hasi dira datorren urteko biltzarra antolatzen. Batzorde Zientifikoak eta Batzorde Antolatzaileak bi bilera egin dituzte eta gaia erabakia dute: Osasun Hezkuntza.

Egunez egun, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira paziente aktiboaren figura, bizitzeko ohitura osasungarriak zabaltzeko beharra eta gisa horretako kontuak.

Gai honi buruzko proposamenik badaukazu (zein gai landu daitekeen, hizlariak, tailerrak…), bidali Batzorde Zientifikoari ekainaren 5a baino lehen, oee@oeegunea.org helbidera.

## Jon Darponen agerraldia Eusko Legebiltzarrean

Jon Darpon Osasun sailburuak agerraldia egin du Eusko Legebiltzarrean, Osakidetzan euskarak duen egoeraz hitz egiteko. Jose Maria Armentia Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendaria laster abian jarriko den 2. Euskara Planari buruz mintzatu zen: "Helburu argia izango du: gaixoen eta langileen hizkuntza eskubideak bermatzea eta euskara lanerako ohiko tresna bihurtzea".

Jon Darponek azaldu zuenez, dagoeneko Osakidetzako lau langiletatik batek egiaztatua du hizkuntza-gaitasuna eta aurten hiru milioi euro bideratuko dira, langileek euskara ikas dezaten.

Rebeka Ubera EH Bilduko parlamentariaren arabera, emaitzak ez dira onak izan eta "lehenengo planak utzikeriagatik eta arduragabekeriagatik porrot egin du".

http://www.oeegunea.org/berriak/ikusi/2013-05-14/osakidetza-eta-euskara-jon-darponen-agerraldia

## Agote Sariaren irabazleak

Azkenean, baditugu 12. Jose Antonio Agote Sariaren irabazleak.

Epaimahaia bildu eta Agote Saria norentzat izango den erabaki du: Iker Badiola Etxaburu eta Edurne Alonso Arana izan dira irabazleak, Giza Histologia lanarekin. Joserra Furundarenak aipamen berezia jaso du, Leuzemia gaiarekin.

Sariak Osasun Biltzarrean banatu ziren, maiatzaren 11n, Iruñean. Bertan izan ziren Mondragon Health eta LKSren ordezkariak, sari honen babesleak.

http://www.oeegunea.org/berriak/ikusi/2013-05-03/12-jose-antonio-agote-sarien-irabazleak

## OEEren Batzar Nagusia

Maiatzaren 10ean, Batzar Nagusia egin du OEEk, urtero bezala, Osasun Biltzarraren barruan.

Lehendabizi, 2012an egindako ekimen nagusiak aipatu dira: Sarien antolaketa, Zuzendaritzak egindako lanak, Webgunea, Donostiako “Osasuntsuago euskaraz” kanpaina, Bizkaiko eta Gipuzkoako Medikuen Elkargoekin batera egindako lana, OEEberri, etab.

Ondoren, aurtengo ekimen nagusien ildoak zehaztu dira.

Zuzendaritzan bi aldaketa egon dira eta Araban eta Bizkaian ordezkari berriak izango dira aurrerantzean.

http://www.oeegunea.org/berriak/ikusi/2013-05-23/oeeren-2013ko-batzar-nagusia-egin-da

## OEEk irabazi du CAF-Elhuyar Merezimendu Saria

CAF-Elhuyar sarien barruan, Elhuyar Fundazioaren Merezimendu saria jaso du OEEk, 23 urte hauetan osasun-arloan euskara bultzatzeko egindako lanagatik. Saritutakoen artean, Gorka Zabaleta dago, *Ikaragarri bero zegoen zopa moduko bat zen hasieran unibertsoa* artikuluagatik. Gernika-Lumoko sei lagunek zientzia gizarteratzeko sorkuntza-beka jaso dute, *Balio berriz balio* izeneko proiektuarekin. Isabel Mendizabalek, berriz, egilearen doktore-tesian oinarrituriko dibulgazio-artikuluaren saria eraman du, antropologia molekularrari buruz eginiko lanari esker. Dibulgazio-artikuluaren saria Migel Kerejetarentzat izan da.

http://www.oeegunea.org/berriak/ikusi/2013-04-26/caf-elhuyar-lehiaketaren-kronika

- **Parte hartu:** Anima zaitez berripapererako ekarpen eta albisteak bidaltzen
- **Jaso:** OEErekin harremanetan jartzeko beste e-posta bat erabili nahi baduzu, edo berripaper hau jaso nahi ez baduzu, jakinarazi mesedez
- **Idazkaritza:** 944 042 720 - oee@oeegunea.org - www.oeegunea.org